





Ghost ship

Zuzendaria: Steve Beck. **Aktoreak:** Julianna Margulies, Gabriel Byrne, Ron Eldard, Isaiah Washington. **Generoa:** Beldurra. **Jatorria:** AEB-Australia. **Iraupena:** 91 minutu. **Webgunea:** www.ghostshipmovie.com

Etsetzar zaharrak mamen bilgune izan daitezkeen bezala, orain dela berrogei urte ozeanoan galdutako ontzi batek ere gorpu eta arima arrarokak gorde ditzake. Hori adierazi nahi du *Ghost ship* Joel Silver ekoizlearen ekimenez sortutako filmak. *Artic Warrior* ontziko langileek itsasoan galduta dauden itsasontziak bilatzen egiten dute lan. Egun batean, *Maria Celeste*, berrogei urte lehenago desagertu zen luxuzko ontzia, aurkituko dute, eta itsasertzera eramaten saiatuko dira. Zeregin horretan, baina, etsai ugari aurkituko dituzte. *Titanic* eta *Alien*-en arteko nahasketa gisa aurkeztu dute filma.



Changing lanes

Zuzendaria: Roger Michell. **Aktoreak:** Ben Affleck, Samuel L. Jackson, Toni Collette, Sydney Pollack. **Jatorria:** AEB. **Iraupena:** 99 minutu. **Webgunea:** www.changinglanes.com

Notting Hill filma Hugh Grantekin eta Julia Robertsekin egin ondoren, Roger Michell zuzendariak estiloz eta generoz aldatzea erabaki du, eta hala egin du *Changing lanes* film berria. Auto istripu arrunt baten ondorioz, abokatu bote-retsuetatik bat (Ben Affleck) eta aseguru agente bat (Samuel L. Jackson), indarkeria eta mendekuzko mundu arrotz batean barneratuko dira. Michellek dioenez, «hiri handietako bizitzan sortzen diren paranoiak buruzko filma» da.



Le fils

Aita semeak

Rosetta film laudatuaren egileek, Dardenne anaiek, pertsonaien arteko harremanak eta tentsio egoerak aztertzen jarraitzen dute. *Le fils* (*Semea*) film berrian, arazo ugari dituen gazte baten eta hari ofizioa irakasten saiatuko den arotzaren artean sortuko den harremanaz aritu dira belgikar zuzendariak. Ohi bezala, gizartearen ikuspegi ilun eta gordina erakusten dute *Le fils*-en.

Olivier (Olivier Gourmet) arazoak dituzten nerabeei ofizioa erakusten dien arotza da. Egun batean, Francis (Morgan Marinne), hilketa bat egin izanagatik bost urte erreformatorioan igaro dituen gaztea, iritsiko da bere eskoletako batera. Hasieran ez du onartuko, ikasle gehiegi dituen aitzakiarekin, baina gaztea eskolan sartuko da. Errespetuan eta hotsasunetan oinarritutako harremana

sortuko da bien artean, baina denborak, ordea, erakutsiko die tragedia batek batzen dituela biak, batak eta besteak ezer jakin ez arren.

Orain dela hiru urte, garaikur handiena eman zien Cannesko jaialdira itzuli dira, aurtan, Dardenne anaiek *Le fils*-ekin. Alabaina, *Rosetta*-k ez bezala, belgikarren filmak ez zuen saririk jaso, baina harrera ona egin zioten zinemaldien zinemaldian.

Rosetta film gogorra zen, eta ikusleari helduleku gutxi uzten zizkion. Ildo horretan, *Semea* ez da asko aldentzen Dardenne filmen estilotik. Kamera eskuan dutela, lehen plano ugariarekin eta inongo musikarik gabe grabatu dute filma anaiek. Ondorioz, eta nahiz eta fikzioaren esparruan kokatzen den, dokumental kutsu nabarmena du *Le fils*-ek. Liejan filmatu zuten, eta Olivier Gourmet du protagonista nagusia. Hain zuzen ere, *La promesse* (96) eta *Rosetta* (99) filmetan lan egin ondoren, dardenendarren zinemaren ikur bihurtu da Gourmet, eta *Le fils*-eko pertsonaia berarentzat idatzi zuten espresuki: «Pertsonaia misterioitsu eta iluna sortu dugu. Filmetik filmara pertsonaia alda daiteke, baina aktorea beti da bera: Olivier Gourmet;

bere gorputza, garondoa, aurpegia eta betaurreko borobilen atzean dauden begi galduak».

Zuzendari batzuek antzeztu behar duen pertsonaiaren aginduetara jartzen dute aktorea. Jean Pierre eta Luc Dardennek, aldiz, kontrako bidea egiten dute: «Aktorearen bilaketa prozesua ezinbestekoa da guretzat, lehenengo hautagaia elkarriketatzen dugunean jaiotzen baita filma bera. Elkarriketa horietan aktoreek kontatzen digutenarekin joaten gara pertsonaia osatzen. Ez dugu testua idatzi eta aktorea bilatzen, kontrakoa baizik. Lerro bakar bat ere ez dugunean hasten gara lanean, eta elkarriketa bakoitzarekin pertsonaia definitzen dugu». Lan egiteko modu hori Francis-en rola bete duen Morgan Marinne gaztea aukeratzeko ere erabili zuten, eta, horretarako, sei hilabete behar izan zituzten.

Muturreko egoerak

Beren aurreko filmetan bezala, *Le fils*-en ere, muturreko egoeretan jarri dituzte pertsonaia zuzendariak. Horri erantzunez, azkeneko lanean ere tragedia bat dago pertsonaien itzalean; edozein unetan azalarazteko tenorean: «Gure zinemaren ezaugarri bat da hori. Pertsona arruntak muturreko egoeretan jartzea gustatzen zaigu beti; bizitza osoan beren burutik pasatuko ez liratekeen kezka moralak muturrean jarriko dizkien egoera batera eramatea».

Rosetta ere antzeko egoera batetik abiatzen da, eta *Le fils* bezala, gainbeheran dagoen industria hirigune batean dago kokatua. Zuzendarien iritziz, ordea, horiek dira filmak lotzen dituzten elementu bakarrak: «*Rosetta* amorruari buruzko filma zen, eta *Semea*, aldiz, soseguari buruzkoa».

Zuzendariak: Jen Pierre eta Luc Dardenne. **Aktoreak:** Olivier Gourmet, Morgan Marinne, Isabella Soupard, Remy Renaud.

Generoa: Drama. **Jatorria:** Frantzia-Belgika. **Iraupena:** 103 minutu.

Anaiak eta zinemagileak

La promesse filmarekin Valladolideko sari nagusia eskuratu zuten 1996an, baina ospea eta prestigioa orain dela hiru urte iritsi zitzaion Dardenne anaiei. *Rosetta* film txiki, gogor eta hunkigarria zarata gutxi atereaz iritsi zen Cannesko zinemaldira, eta han, berriz, ikusleak txunditu, eta Urrezko Palmarekin ataratu zen. Gainera, gero, zine klubetako ezinbesteko filma bilakatu da. Horren aurretik, ordea, ibilbide sendoa egin zuten zinemagileek ikus-entzunezkoen alorrean. Jean Pierre eta Luc, Dardenne anaiek, Engisen (Belgika) sortu ziren, 1951n eta 1954an, hurrenez hurren. 1975ean, Derives izeneko ekoiztetxea sortu zuten telebistarako dokumentalak sortzeko, eta, 80ko

hamarkadaren erdialdean, zinemarako lanak ere egiten hasi ziren, proiektuen izaera dokumentalari bizkarra eman gabe. Nazioarteko onospena, dena dela, 90eko hamarkadan iritsi zitzaion *La promesse* eta *Rosetta*-rekin.

